



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Image: [This cover has been designed using images from Freepik.com](https://www.freepik.com)

# Liburuek gordetzen dutena

Hizkuntzen Trataera Integratua  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila



## Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

### Inplikaturiko ikasgaiak

Euskara eta Euskal Literatura, Gaztelania eta Literatura, Ingelesa eta atzerriko bigarren hizkuntza, Frantsesa.

Hizkuntza Trataera Integratuaren ikuspuntutik landuko da ikas-egoera hau.

### Saio-kopurua

12 (ikasleen beharrianetara egokituko da)

### Ikas-egoeraren markoa

#### A. Testuingurua

*Ikastetxea, hezkuntza, irakurketa, irakurzaletasuna...* elkarrengandik gertu egon beharko luketen kontzeptu hauek kontrajarri egiten dira askotan ikasleen gogoetetan. Ikasgaiak baliatu nahi dira irakurtzeko ohitura bultzatzeko, ikasleen artean irakurzaletasuna sustatzeko, baina askotan ez da lortzen. Erronka horri egingo dio aurre ikas-egoera honek, eta erakutsiko du irakurketa hainbat ikuspuntu eta hizkuntzatik landu eta gozatu daitekeela.

#### B. Abiapuntua

Ikastetxean, urtero, liburutegia dinamizatzeko gai bat aukeratzen da. Aurten, feminismoa eta Garapen Iraunkorrerako 5. helburua (Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea) izango dugu ardatz. Literaturan “maitasun erromantikoa”, “emakumearen ikuspegia denboran zehar”, “emakumearen parte-hartzea”, “emakume idazleak”... bezalako gaiak izan duten presentziari erreparatuko diogu, eta lau hizkuntzatik aztertuko dugu zer-nolako trataera izan duten.

#### C. Azken ekoizpena

Azken ekoizpena afixa bat izango da, talde kooperatibo bakoitzak aukeratutako liburuekin egindako lanak bilduko dituena. Bertan, liburuaren portada eta lau QR kode agertuko dira. QR kode hauek liburu berari buruz hizkuntza bakoitzean egindako azken produktu hauek gordeko dituzte:

Euskaraz: booktube-a.

Gaztelaniaz: pasarte baten irakurketa dramatizatua (podcast-a).

Ingelesez: book review (fitxa, sinopsia, iritzia eta idazlearen biografia laburra).

Atzerriko bigarren hizkuntzan, frantsesez: pertsonaiei buruzko azalpen-gida.

Afixa hauek herriko liburutegian, kultur etxean, parkean edo ikasle-irakasleek adosten duten leketan modu fisikoan jartzeaz gainera, ikastetxearen web-orriko txoko batean ere jar daitezke.



## **Proposamenaren justifikazioa**

### **A. Proposamenaren xedea**

Ikas-egoera honen helburua da ikasleen artean irakurzaletasuna sustatzea. Liburuek gozatzeko eskaintzen dituzten askotariko aukerak azaleratuko ditugu, haiekin jolastuko gara, eta egindako lanen berri emango dugu. Horretarako, liburu egokiak aukeratu, irakurri, aztertu eta interpretatuko dituzte, haietaz solas egingo dute, pertsonaien arteko erlazioetan sakondu eta hausnartu, eta azkenik, egindakoa plazaratuko dute. Betiere feminismoa iparrorratz harturik.

Ikas-egoera honek hizkuntza-komunikaziorako funtsezko konpetentziari egiten dio ekarpena, baina baita eleaniztasunerako konpetentziari ere, hizkuntza-trataera integratuaren ildotik egingo baitugu lan. Talde-lanean eta modu digitalean hausnarturiko, adosturiko eta sorturiko hainbat ekoizpen egingo dira. Garapen Iraunkorrerako 5. helburua oinarri hartuta eginiko azken produktuei komunitatean zabalkundea emango zaienez, digitalizaziorako konpetentziari, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoari, herritartasunerako konpetentziari, ekintzailtzarako konpetentziari eta kultura-kontzientzia eta adierazpenerako konpetentziari ere ekarpena egingo zaie. Horrenbestez, ikas-egoera honek irteera-profilari bete-betean egiten dio ekarpena.

### **B. Argudiaketa kurrikularra**

(Ikus taula)

#### **C. Helburu didaktikoak**

- Irakurketa, gozatzeko iturritzat hartzea, eta irakurzaletasuna sustatzea.
- Irakurketa-esperientzia partekatzea.
- Literatura ezagutzaren eta garapen pertsonalaren iturri gisa ulertzea eta erabiltzea.
- “Emakumea eta Literatura” gaiari buruz hausnartzea.
- Ahozko testuak erreproduzitzea, antolatzea, sortzea eta zabaltzea, espresioa, intonazioa, erritmoa eta hitz-jarioa zainduz eta hizkuntzaren ahoskera-arauak errespetatuz.
- Argudio-testuen ezaugarriak aztertzea eta ahozko zein idatzizko argudio-testuak ekoiztea.
- Pertsona-deskribapenak antolatzea eta sortzea.
- Hizkuntzen arteko mugak gainditzea –hizkuntza batean landutako ezagutzak beste hizkuntzetara transferituz–, eta haien arteko antzekotasun eta desberdintasunak identifikatzea.
- IKTen erabilera-ohitura iraunkor eta kritikoak hartzea eta modu autonomoan eta eraginkorrean erabiltzea.
- Norberaren eta ikaskideen ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egitea eta egindako lanen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak egitea.
- Talde-lanean trebatzea, modu kooperatiboan lan eginez.

## Argudiaketa kurrikularra:

Funtsezko Konpetentziak	Deskriptoreak	Konpetentzia Espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
<b>EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA / LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA</b>				
<b>HKK</b>  <b>KE</b>  <b>KD</b>	<b>2</b>  <b>2</b>  <b>2, 3</b>	2. "Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena bilduz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitze, iritzia osatzeko eta gozameneko eta aisiarako aukerak zabaltzeko...."	2.1. Zenbait esparrutakoak diren eta nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen zentzu orokorra eta egitura interpretatzea, baita komunikazio-premien arabera eta igorlearen asmoaren arabera informaziorik garrantzitsuena ere, elementu ez-esplizituak ondorioztatzen lagunduko dioten ahozko ulermen-arazoak ebazteko estrategia egokiak erabiliz eta kodeen arteko elkarreragina aztertuz. 2.2. Nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia baloratzea, erregistroaren eta erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	- Testu ikoniko eta hitzekoen eta multimodalen irudia eta elementu paratestualak aztertzeko jarraibideak. - *Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu orokorra. Ideia nagusiak eta sekundarioak eta zatien arteko erlazioa; garrantziko informazioaren aukeraketa eta atxikipena. Informazioa berreskuratzea eta ondorioztatzea. Igorlearen asmoa. Testuetako lexikoa. -Gaia. Testuaren helburua.
<b>HKK</b>  <b>KD</b>  <b>KPSII</b>  <b>EK</b>	<b>1, 5</b>  <b>2, 3</b>  <b>1, 3, 4, 5</b>  <b>1</b>	3. "Ahozko testuak eta testu multimodalak jariatortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahozko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitze eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko..."	3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte-, hezkuntza-eta lanbide-intereseko gaiei buruzko nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten ahozko azalpenak eta argudioak diseinatzea eta egitea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, jariatortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzeko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz. 3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarreragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta	-*Bizitza pertsonaleko eta eskola-eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa. -*Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarako jarraibideak.. -*Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikustearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren arabera egokitzen diren hitzekoak ez diren elementuak. Ahozotasun formalararen diskurtso-eta hizkuntza-ezaugarriak. Ahozko deliberazio argudiatua. - *Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak modu seguruan eta sormenez erabiltzeko jarraibideak, horien erabilera baztertzaila eta sexista identifikatuz eta baztertuz. -*Gogoeta interlinguistikoa garatzeko estrategiak.



			sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.	-Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak. -Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak.
<b>HKK</b> <b>KE</b> <b>STEM</b> <b>KPSII</b>	<b>2</b> <b>2</b> <b>4</b> <b>4, 5</b>	4. Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, zentzu kritikoan eta irakurtzeko zenbait xedez, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeke eta askotariko komunikazio-premiei eta -interesei erantzuteko..."	4.1. Zenbait irakurketa-asmori erantzuten dioten eta nolabaiteko zailtasuna duten testu idatzien eta multimodalen zentzu orokorra, egitura, informazio garrantzitsuena eta igorlearen asmoa ulertzea eta interpretatzea, irakurriaren ulermenaren arazoak ebazteko estrategia eta trebetasun emozional eta kognitibo egokiak erabiliz eta behar diren inferentziak eginez. 4.2. Esparru akademikoko, publiko edo sozialeko, eta esparru pertsonaleko eta/edo etxeko esparruko testu errazen forma eta edukia baloratzea, horien kalitatea, erabilitako kanalaren fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	- *Oinarrizko testu-sekuentziak, arreta berezia eskainiz sekuentzia narratiboei, azalpenekoei eta argumentatiboei. - *Testuetan hitzeko hizkuntzaren, hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak. - *Generoen testu-egiturak ezagutzeko jarraibideak. - *Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertzeke eta baloratzeke jarraibideak.
<b>HKK</b> <b>KE</b> <b>STEM</b> <b>KD</b> <b>KPSII</b> <b>EK</b>	<b>1</b> <b>2</b> <b>4</b> <b>2, 3</b> <b>4</b> <b>1</b>	5. "Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurto-generoaren berezko konbentzioei jarraituz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteke..."	5.1. Nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testu idatzi eta multimodalen idazketa formala eta sormenezkoa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinen arteko elkarrizketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko erregistro egokiz. 5.2. Testuak aberasteko prozedurak txertatzea, diskurto-, hizkuntza-eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan.	-*Testuaren propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. - *Idatzizko produkzioarako estrategiak, plangintzarekin, idazketarekin, berrikuspenarekin, edizioarekin eta hainbat euskarritan hedatzearekin lotzen direnak. - Testu-egituretako patroien erabilera. -*Puntuazio-zeinuak, idatzizko testua antolatzeke mekanismo gisa. Esanahiarekin duten lotura. -Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak. -*Autoebaluaziorako, autorregulaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, eta kooperatiboak eta indibidualak. .
<b>HKK</b>	<b>1, 2, 4</b>	7. "Gero eta modu autonomoagoan	7.1. Norberaren gustuen, interesen eta premien	-Emakumezko eta gizonezko idazleak barne hartzen dituzten



<p><b>KPSII</b> <b>HK</b> <b>KAKK</b></p>	<p><b>1, 3</b> <b>1</b> <b>1, 2, 3</b></p>	<p>aukeratzea eta irakurtzea hainbat obra —plazer- eta ezagutza-iturri gisa—, obren aniztasunari, konplexutasunari eta kalitateari dagokienez eboluzionatzen duen irakurle-ibilbidea eratuz; eta irakurketa-esperientziak partekatzea, nork bere irakurle-nortasuna eraikitzeke eta irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko...”</p>	<p>arabera hautatutako testuak modu autonomoan irakurtzea, eta norberaren irakurketa-eta kultura-ibilbidearen aurrerapena jasota uztea, irakurketak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturara iristeko moduak eta irakurketa-esperientzia azalduz.</p> <p>7.2. Askotariko euskarritako irakurketaren esperientzia partekatzea, ezagutza, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa baloratuz eta obraren zentzua norberaren esperientzia pertsonal, irakurle eta soziokulturalarekin erlazionatuz</p>	<p>askotariko obrak modu autonomoan eta genero-ikuspegiarekin hautatzeko jarraibideak, eskolako liburutegia eta eskura dagoen liburutegi publikoa modu autonomoan erabiliz.</p> <p>-*Irakurketa-esperientzia adierazteko tresnak, baita irakurritako testuak modu kritikoan eta sormenez birsortzeko eta menderatzeko modu desberdinak adierazteko tresnak.</p> <p>-*Esperientzia pertsonala eta irakurketa- eta kultura-esperientzia mobilizatzeko estrategia kognitiboak eta emozionalak, irakurritako obraren eta gaurkotasuneko alderdien artean loturak argudiatuta ezartzeko, baita beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural batzuekin ere.</p> <p>-Irakurketak berdinen artean gomendatzeko estrategiak, askotariko euskarrietan edo ahoz, betiere obrak literatura-generoetan eta -azpigereroetan eta sortu ziren errealitate soziohistorikoan kokatuz.</p>
<p><b>HKK</b> <b>KPSII</b> <b>HK</b> <b>KAKK</b></p>	<p><b>1, 2, 4</b> <b>3</b> <b>1</b> <b>1, 2, 3, 4</b></p>	<p>8.” Euskal Herriko, Espainiako eta mundu osoko ondarearen parte diren literatura-obrak edo obra horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta esperientzia pertsonala eta literatura- eta kultura-ezagutzak mobilizatuz, askotariko testuen arteko loturak eta bestelako arte- eta kultura-adierazpenekiko loturak ezartzeko, norberaren kultura-nortasuna eraikitzeke, literaturaren gozamenerako aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko. ...”</p>	<p>8.1. Irakurritako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, obra osatzen duten elementuen barne-erlazioek obraren zentzuarekin duten loturaren azterketatik eta testuak testuinguru sozio historikoarekin dituen kanpo-erlazioetatik abiatuta, literatura-generoen eta -azpigeroen konfigurazioari eta bilakaerari erreparatuz.</p> <p>8.2. Irakurritako testuen eta bestelako idatzizko edo ahozko testuen edo testu multimodalen eta bestelako adierazpen artistiko eta kulturalen artean lotura arrazoituak gero eta modu autonomoagoan ezartzea, mugimendu, gai, tradizio, topiko, egitura, hizkuntza eta balio etiko eta estetikoaren arabera, irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala erakutsiz.</p> <p>8.3. Testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzaz, askotariko literatura-generoentz eta estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo horien zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz</p>	<p>-*Literatura-kontaketa: egitura; egilea, narratzailea, narrazioaren perspektiba eta polifonia; pertsonaiak; espazioa eta denbora.</p> <p>-*Irakurritako testuak beste ahozko edo idatzizko testuekin, testu multimodalekin, beste arte- eta kultura-adierazpen batzuekin eta fikziozko forma berriekekin lotzeko eta alderatzeko jarraibideak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraitutasun- eta haustura-elementuak.</p> <p>-*Literatura-obrak eta horien zatiak interpretatzeko estrategiak, aztertutako alderdien integrazioetik abiatuta eta testuetako balio kultural, etiko eta estetikoak kontuan hartuta. Genero-ikuspegia duen irakurketa.</p> <p>-Irakurritako obren inguruan ikertzeko tresnak eta estrategiak, obren interpretazioa eraikitzeke eta irakurritako testuen artean loturak ezartzeko interesa sustatzen dutenak.</p> <p>-Testuen irakurketa espresiboa, dramatizazioa eta errezitazioa, inplikatur dauden ulermen-, jabetze- eta oralizazio-prozesuekin lotuta.</p> <p>-*Testuak sortzeko jarraibideak, literatura-hizkuntzaren konbentzioak menderatzetik abiatuta eta emandako ereduie erreferentzia eginez (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, eta abar) eta hizkuntzaren erabilera sexista eta diskriminatzailea saihestuz.</p>



<p><b>HKK</b> <b>KE</b> <b>STEM</b> <b>KPSII</b></p>	<p>1, 2 2 2 4, 5</p>	<p>9. "Hizkuntzaren egiturari eta haren erabilerei buruzko ezagutza mobilizatzea eta hizkuntza- eta diskurtso aukeraketei buruz gero eta autonomia handiagoz eta terminologia egokiarekin gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatziko produkzio-trebetasunak nahiz ulermen eta interpretazio kritikoko trebetasunak hobetzeko."</p>	<p>9.1. Norberaren eta besteen testuak gero eta modu autonomoagoan berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, aldagetak metahizkuntza espezifikoa batekin eta gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta argudiatuz; eta irakurriaren ulermenerako arazo batzuk identifikatzea eta zuzentzea, hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko ezagutza esplizituak erabiliz.</p> <p>9.2. Komunikazio-asmoaren eta igorleak egiten dituen hizkuntza-hautespenen arteko erlazioa azaltzea eta argudiatzea, baita horrek hartzailearengan dituen efektuak ere, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.</p> <p>9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi batzuei buruzko orokortasunak formulatzea, enuntziatuen manipulazio, konparazio eta eraldaketatik, hipotesien formulaziotik eta kontra adibideen bilaketatik abiatuta, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegi, eskuliburu eta gramatika analogiko eta/edo digitalak modu autonomoan kontsultatuz.</p>	<p>-*Zuzentasun lexikoa.</p> <p>*Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Testu-lokailuak (banatzaileak, ordenakoak, kontrastekoak, azalpenekoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesikoak) eta barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko nominalizazioak eta hiperonimoak...).</p> <p>-*Testuetako aditz-formen erabilera koherentea. Denborazko korrelazioa perpausen koordinazioan eta menderakuntzan, eta kontakizun-diskurtsoan.</p> <p>-*Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.</p>
<p><b>HKK</b> <b>KE</b> <b>KD</b> <b>KPSII</b> <b>HK</b></p>	<p>1, 5 3 3 3 1, 2, 3</p>	<p>10. "Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren, gatazken elkarriketa bidezko kudeaketaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra, etikoa eta demokratikoa bultzatzeko."</p>	<p>10.1. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak, hitzaren bidez egiten diren botere-abusuak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzailerak identifikatzea, gaitzestea eta baztertzea, erabilitako hizkuntza-, testu-eta diskurtso-elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuen gogoetatik eta azterketatik abiatuta, ingurune analogiko eta digitaletan.</p> <p>10.2. Gatazkek elkarriketaren bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, solaskideen iritzi eta sentimenduekiko errespetuzko jarrera enpatikoa eta asertiboa erakutsiz, esparru pertsonalean zein hezkuntzaren eta gizartearen esparruan.</p>	<p>-*Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak miatzeko eta eztabaidatzeko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne, eta horiek saihesteko moduak.</p> <p>- *Elkarriketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia. Hitza hartzeko txandak. Elkarrengandik hasiera, mantentzea eta amaiera. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkek elkarriketa bidez kudeatzeko baliabideak, genero-ikuspegitik: esanahia argitzeko, emozioak islatzeko, parafraseatzeko eta enuntziatuak formulatzeko jarraibideak.</p>



ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA - INGELESA				
<b>HKK</b>	<b>2, 3</b>	1. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testuak, hizkuntza estandarrean eta garbi adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, hala nola esanahien inferentzia, betiere zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan horien edukia baloratzeko.	1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako luzera ertaineko ahozko testuen eta testu idatzi eta multimodalen zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzea eta informazio egokia aukeratzea, berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.	<p>- Gero eta luzeagoak diren eta lexiko eta egitura aberatsagoak dituzten ahozko testuak, testu idatziak eta testu multimodalak planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko erabili ohi diren estrategiak.*</p> <p>- Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako erabili ohi diren komunikazio-funtzioak: agurtzea eta agur esatea, aurkeztea eta nor bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak, lekuak, fenomenoak eta gertaerak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaietako buruzko informazioa eskatu eta trukitzea; jarraibideak, aholkuak eta aginduak ematea eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta ukatzea; gustua edo interesa eta emozioak modu partzialean adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea, gaur egungo egoerak deskribatzea eta etorkizuneko gertaerak enuntziatzea; iritzia, aukera, gaitasuna, obligazioa eta debekua adieraztea; argudio errazak adieraztea; hipotesiak eta suposizioak egitea; ziurgabetasuna eta zalantza adieraztea; birformulatzea eta laburtzea.*</p> <p>- Garrantzi pertsonala duten eta esperientziatik hurbil dauden interes publikoko eguneroko gaietako buruzko ahozko testu eta testu idatzi eta multimodalak laburrak eta errazak ulertu, produzitu eta koproduzitzeko erabili ohi diren testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, gero eta luzeagoak eta lexikoan eta egituretan aberatsagoak izango direnak eta pertsonen arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren esparruei dagozkienak, baita ikasleen heldutasun-mailarako egokiak diren literatura-testuak ere: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera); testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren, testuaren funtzioaren eta egituraren arabera antolaketa eta egituraketa.*</p> <p>- Hizkuntza-unitateak, hala nola erakundearen adierazpena eta haren propietateak, kopurua, gradazioa eta kalitatea, existentzia, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora eta denbora-erlazioak, modua, konparazioa, emaitza, baldintza, zeharkako estiloa, aspektu puntuala; iraupeneko; ohikoa; hasiera ematekoa; amaiera ematekoa eta modalitatea: faktikotasuna,</p>
<b>KE</b>	<b>1, 2</b>		1.2. Gero eta konplexuagoak diren testuen edukia eta diskurtso-ezaugarriak interpretatzea eta baloratzeko.	
<b>STEM</b>	<b>4</b>		2.2. Luzera ertaineko eta lexiko eta egitura aberatseko testuak antolatzea, idaztea eta hedatzea, argitasun, koherentzia, kohesio, zuzentasun eta sormen onargarriez eta proposatutako komunikazio-egoerara, testu tipologiara eta erabili ohi diren tresna analogiko eta digitalerara egokituz.	
<b>KD</b>	<b>1</b>		2.3. Testuak planifikatzean, produzitzean eta berrikustean eta testuen prestaketan kooperatzean erabili ohi diren ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera egokienak diren baliabide analogikoak edo digitalak erabiliz, herritartasun digital zibiko eta gogoetatsua burutuz, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.	
<b>KPSII</b>	<b>5</b>		2. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testu originalak sortzea, hedapen ertainekoak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, kontentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezua garrantzitsuak sormenez, egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.	
<b>KAKK</b>	<b>2</b>			
<b>HKK</b>	<b>1, 5</b>			
<b>KE</b>	<b>1, 2</b>			
<b>STEM</b>	<b>4</b>			
<b>KD</b>	<b>1, 2</b>			
<b>KPSII</b>	<b>5</b>			
<b>EK</b>	<b>1, 3</b>			
<b>KAKK</b>	<b>3</b>			





				<p>ahalmena, aukera/probabilitatea, beharra, obligazioa, baimena, asmoa eta modalitatea, baieztapena, ukazioa, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak: lokailuak, deiktikoak eta sinonimoak.*</p> <p>- Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak; toki eta inguruneak; aisia eta aisialdia; eguneroko bizitza; osasuna eta jarduera fisikoa; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eskola-sistema eta prestakuntza.*</p> <p>- Ulermen, produkzio eta koprodukziarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala—erabili ohi diren tresna analogikoak eta digitalak; eta hezkuntzaren arloko interakzio, kooperazio eta kolaborazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko.*</p> <p>- Literatura-testuaren eta irakurketaren balorazioa, gozamen-iturri gisa, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.</p>
<p><b>HKK</b> <b>KE</b> <b>KD</b> <b>KPSII</b> <b>HK</b> <b>KAKK</b></p>	<p><b>5</b> <b>1, 2</b> <b>3</b> <b>3</b> <b>3</b> <b>3</b></p>	<p>3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, betiere komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.</p>	<p>3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkronoak planifikatzea eta horietan partehartzea eta kolaboratzea zenbait euskarriren bidez, ekimena, jarrera kritikoa, sormena, enpatia eta hizkuntza-kortesiaren eta etiketa digitalaren aldeko errespetua erakutsiz, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen aldeko enpatia eta errespetua ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.</p> <p>3.2. Komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta uzteko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, arazoak berriro formulatu, alderatu, kontrastatu, laburtu, kolaboratu, eztabaidatu eta ebazteko, eta ingurune analogikoetako eta digitaletako egoera konprometituak kudeatzeko erabili ohi diren estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.</p>	<p>- Erabili ohi diren konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.*</p> <p>- Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak, ingurune analogiko eta digitaletan. Gatazken kudeaketa.*</p>



			3.3. Plangintza-eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta ingurune analogikoetan eta digitaletan sortzen diren gatazkak kudeatuz.	
KE KD KPSII	2 2 1, 5	5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzez jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.	5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak argudiatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoz gogoeta eginez.  5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta aztertzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategiarik eraginkorrenak hautatuz eta ikaskuntzaren planifikaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako erabili ohi diren estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarrean (HPE) edo ikaskuntza eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen horiek zehaztuz eta partekatuz.	- Informazioa bilatu, hautatu eta kudeatzeko erabili ohi diren estrategiak eta baliabide analogiko eta digitalak. - Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, eta abar) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabili ohi diren estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.* - Autoebaluazio, koebaluazio eta auto-konponketarako erabili ohi diren estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, baita atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzekoak ere. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).* - Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio-eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko ideiak trukatzeko erabili ohi diren lexiko eta esamolde espezifikokoak.* - Hizkuntzen arteko konparaziorako estrategiak, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
<b>ATZERRIKO 2. HIZKUNTZA: FRANTSESA</b>				
HKK KE STEM KD KPSII	3 2 4 1 5, 2	1. Oinarrizko diskurtso-generoetako eta eguneroko erabilerako testu labur eta errazak, argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, adibidez, esanahien inferentzia, zentzu orokorra eta	1.1 Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodal labur eta errazen zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.. 1.2 Komunikazio-egoerarako estrategia eta ezagutza egokienak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea,	- Ahozko, idatzizko eta testu multimodal oso labur eta oso errazen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, egikaritzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko oinarrizko estrategiak.* - Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako komunikazio-funtzio oso oinarrizkoak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; pertsonak, <b>objektuak eta lekuak deskribatzea</b> ; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazio pertsonala eta eguneroko gai errazei buruzkoa eskatzea eta



		ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan haien edukia baloratzeko.	testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzeko; esanahiak inferitzea eta hitzik gabeko elementuak interpretatzea	trukatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaintzea; partzialki adieraztea gustua, lehenetsuna edo interesa eta oso oinarritzko emozioak; iraganeko gertaerak kontatzea; egungo egoerak deskribatzea.* - Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, oso oinarritzkoak eta eguneroko erabilera-ereduak, ahozko, idatzizko eta testu multimodal oso labur eta oso sinpleak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko, eta eraldatzeko, ohiko eta eguneroko gaietarako buruzkoak, garrantzi pertsonalekoak eta esperientziatik hurbil daudenak, pertsonen arteko harremanen eta ikaskuntzaren esparruetan berezkoak direnak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren eta egituraren arabera antolatzea eta egituraketa, funtzio testuala eta egitura. *
<b>HKK</b> <b>KE</b> <b>STEM</b> <b>KD</b> <b>KPSII</b> <b>EK</b> <b>KAKK</b>	<b>1</b> <b>2</b> <b>4</b> <b>2</b> <b>5</b> <b>1, 3</b> <b>3</b>	2: Oinarritzko diskurtso-generoko eta eguneroko erabilera-ereduak testu originalak sortzea, laburrak, errazak eta antolatzea argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko..	2.2 Testu laburrak eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta erabilera orokorreko lexikoa izango dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideak betez, banaka edo modu kooperatiboan, tresna analogiko eta digitalen bidez. 2.3 Lagunduta, testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko erabilera orokorreko ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera baliabide analogiko edo digital egokienak erabiliz, herritartasun digital zibikoan eta gogoetatsuan jardunez, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.	- Oso oinarritzko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitateak eta bere propietateak, kantitateak eta nolakotasuna, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak. * - Oinarritzkoak diren konbentzio ortografikoak eta formatu, patrioi eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio asmoak. * - Ulermen, produkzio eta koproduziorako –ahozkoa, idatzizkoa eta multimodala-tresna analogiko eta digitalak; eta hezkuntzaren esparruko interakzio, kooperazio eta kolaboraziorako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideo-konferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzunekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak modu seguruan garatzeko. *
<b>HKK</b> <b>KE</b> <b>KD</b> <b>KPSII</b> <b>KAKK</b>	<b>5</b> <b>2</b> <b>3</b> <b>3,</b> <b>3.</b>	3 Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoaz elkarrenganean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.	3.3 Plangintza-eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.	- Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autorreparaziorako erabilera orokorreko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE). * - Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banakako erantzukizunak hartzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*



<p><b>KE</b> <b>KD</b> <b>KPSII</b></p>	<p><b>2</b> <b>2,</b> <b>1, 5</b></p>	<p>5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzez jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.</p>	<p>5.1 Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoaz gogoeta eginez.</p> <p>5.3 Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta analizatzea, zailtasun horiek gainditzeko eta haren ikaskuntza finkatzeko estrategia eraginkorrenak hautatuz, ikaskuntza bera planifikatzeko eta autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko erabilera orokorreko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaste-eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen eta zailtasun horiek esplizitatuz eta partekatuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autokonfiantza eta ekimena. Akatsa, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa.*</li> <li>- Komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta gero eta arintasun, egokitasun eta zuzentasun handiagoaz erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta berezko hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan konpetentzia-mailak eragindako mugez gainetik.*</li> <li>- Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarriko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*</li> <li>- Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko erabilera orokorreko estrategiak.</li> <li>- Atzerriko hizkuntzaren elementuetatik eta beste hizkuntza batzuetatik abiatuta hizkuntzak konparatzeko estrategiak: jatorria eta ahaidetasunak.*</li> <li>- Literatura-testua eta irakurketa atsegin-iturritzat hartzea, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.</li> </ul>
---	---	---	--	---



## Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakasleentzat)

KRONOGRAMA

EKINTZAK	1. ASTEA	2. astea	3. astea	4.astea	5. astea
Ikas egoeraren aurkezpena eta liburuaren aukeraketa					
Estos son nuestros libros y nuestros autores y autoras (saio 1)					
Irakurketa gelan, altuan (saio1)					
Conversación literaria (1). Visto lo visto, ¿hacia dónde nos llevará la historia? (saio 1)					
Irakurketa gelan (saio 1)					
Time to read in class (saio 1)					
Irakurketa gelan (saio 1)					
Booktuberrik onenak (saio 1)					
Azter ditzagun argudiozko testuak (saio 1)					
The Bookworm corner. Having a look at different book reviews. (saio 1)					
Pertsonaiak identifikatu					
Adibideak aztertzen					
Tenemos ejemplos...(saio 1)					
Conversación literaria (2). Analizamos a la protagonista. (saio 1)					
Estrategias para realizar una buena lectura dramatizada. (saio 1/2)					
Elegimos la escena. (saio 1/2)					
Gu beti alde/kontra (saio 1)					
Flipped Classroom (saio 1)					
I have a dream (saio 1)					
Opinion essays in Basque, Spanish and English. Similarities and differences. (saio 1)					
Revising the structure of a Book review. (2 saio)					
Gure pertsonaiak					
deskribapenaren hiztegia landu (adjectifs personnalité, relations personnelles)					
deskribapenaren gramatika landu ( les pronoms relatifs)					
Pertsonaien deskribapena landu OSCAR ( karakterizazio zuzena eta zeharkakoa)					
En el aire! (saio 1 + 1/2)					
Colaboramos en el diseño final (1/2 saio)					
Conversación literaria (3). Tertulia final. (saio 1)					
Atera dezagun lupa (1/2 saio)					
Atera ditzagun arkatzak (saio1)					
Atera ditzagun mikroak (1/2 saio)					
Argiak, kamera eta ekin! (saioa1)					
Your turn - Writing the first draft of our book review (saio 1)					
Critique and feedback. Learning from each other. (saio 1/2)					
Choosing the best review of our team. (saio 1/2)					
Designing the presentation of our book reviews.					
Final production.					
Norberak berea: narrazio labur batekin pertsonaien deskribapena egin					
Gure pertsonaiak 2: Taldean zuzendu eta birmoldatu					
Azken ekoizpena: Bukaerako aurkezpen diseinuaren tresna eta diseinua adostu					
Entzun gaitzabela edonon					
Zer eta nola ikasi dugu					

	EUSKARA
	GAZTELANIA
	INGELESA
	FRANTSESA
	HIZKUNTZA GUZTIAK



### Proiektuaren aurkezpen orokorra

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>Aurkezpena</b> Eskolako liburutegian egingo da aurkezpena. Euskarako, gaztelaniako, ingeleseko eta frantseseko irakasleak egotea komeni da. Ikas-egoeraren nondik norakoak azalduko zaizkie ikasleei: jakin behar dute zer lan egingo duten eta zertarako, nola egingo duten lan eta zer eta nola ebaluatuko den. Komeni da gauzak negoziatzeko aukerak ematea. Dena argi utzi eta kontratu didaktikoa sinatuko dugu. Talde kooperatiboetan talde-plana osatzen hasiko gara (taldearen izena, karguen banaketa, helburu pertsonalak finkatzea...)</p> <p><b>Liburuak aukeratzea.</b> Talde kooperatiboek zerrenda batetik liburu bana aukeratuko dute. Zerrendatik kanpoko liburu bat aukeratu nahi izanez gero, ondo argudiatu beharko dute.</p>	<p>- Akordioetara heltzen da eta lanerako konpromisoak hartzen ditu.</p>	<p>- Lan-plana eta kontratua - Behaketa  - Talde-plana (IKKI)</p>

### Euskara eta Literatura

#### A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>1. Liburuen bakarkako irakurketa.</b></p>		
<p><b>2. Booktuber-ik onenak.</b> Irakasleak modan dauden eta eredugarriak diren booktuber-ak proiektatuko ditu (booktuberboom egitasmoan aukera zabala dago). Taldeka komentatuko dute zer diren booktube-ak, zer ezaugarri dituzten, zer testu-tipo eta -genero erabiltzen dituzten...</p>	<p>- Ahozko testuetako informazioa ulertzen eta interpretatzen du. - Ahozko elkarreraginean, errespetuz hartzen du parte, besteen iritziak entzunez eta bereak emanez, inolako diskriminazio-erabilerarik gabe.</p>	<p>- Behaketa</p>



## B. Garapen-fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>3. Azter ditzagun argudio-testuak.</b></p> <p>A) Talde bakoitzak argudio-testu idatzi bat aztertu (ezaugarriak, hezurdura, hizkera, lexikoa...).</p> <p>B) Talde handian argudio-testuen egitura eta ezaugarriak adostu. Txantiloia sortu.</p>	<p>- Testu idatzietako informazioa ulertzen eta interpretatzen du.</p> <p>- Argudio-testuen egitura eta baliabide linguistikoak identifikatzen ditu.</p>	<p>- Behaketa</p> <p>- Sortutako txantiloia</p>
<p><b>4. Gu beti alde/kontra.</b></p> <p>Irakasleak taldeei rol bana emango die (batzuk beti alde, eta beste batzuk beti kontra), eta gai gatazkatsuek planteatuko ditu. Gaia aipatu eta aldeko eta kontrako pisuzko argudio bana emango du irakasleak. Ondoren, talde bakoitzak 5 minutu izango ditu bere alegatua prestatzeko "orri birakaria" teknikaren bidez. Irakasleak emandako kontrol-orria erabiliko dute argudiaketa prestatzeko. Denbora bukatutakoan, ahoz defendatuko du talde bakoitzak bere jarrera bozeramaile baten bidez (txanda bakoitzean bat).</p>	<p>- Ahozko testuak ulertu eta interpretatu ondoren, bere esperientzia pertsonalekin lotu eta iritziak adierazten ditu.</p>	<p>- Behaketa</p> <p>- Kontrol-orria</p> <p>- Ahozko adierazpenet arako errubrika</p>
<p><b>5. Flipped Classroom.</b></p> <p>Testu-antolatzaileen eta iritziak emateko modu desberdinen lanketa.</p> <p>A) Ikasleek testu-antolatzaileei eta iritziak emateko modu desberdinei buruzko bideo bat ikusi eta landuko dute etxean. Nahi adina aldiz ikus dezakete. Bideoak ulermen-galdera batzuk izango ditu.</p> <p>B) Hurrengo saioan, irakasleak idatzizko testuak banatuko dizkie taldeei; bertan, bi betebeharrak izango dituzte: alde batetik, paragrafoak ordenatu beharko dituzte; eta bestetik,</p>	<p>- Iritziak emateko modu desberdinak identifikatzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>- Testuari kohesioa emateko, testu-antolatzaileak egoki erabiltzen ditu.</p>	<p>- F.C. ikustaldiak eta ariketak.</p> <p>- Argudio-testu idatzien ariketa.</p> <p>- Behaketa (talde-lana)</p>



<p>testu-antolatzaileak jarri. Talde kooperatiboetan egingo dute lan “1-2-4” teknika erabiliz.</p>		
<p><b>6. I have a dream.</b> Ahozotasuna lantzeko ariketa da hau. A) Lehenengo, irakasleak modelajea egingo du, eta politiko-papera hartuta, film edo telesail baten kritika egingo du. Ondoren, ozenki irakurtzeko gomendioak eta ahazkotasunaren arauak aztertuko dira talde handian. B) Taldean, telesail edo film baten kritika prestatu eta beste taldeetara joango dira defendatzera. Kritika sortzeko, kontrol-orria erabiliko dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko sorkuntzetan intonazioa, erritmoa eta jariakortasuna zaintzen ditu, eta hizkuntzaren ahoskera-arauak errespetatzen ditu.</li> <li>- Beste hizkuntzetan ikasitakoa euskarara transferitzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontrol-orria</li> <li>- Errubrika (kritika)</li> <li>- Behaketa (talde lana)</li> </ul>
<p><b>7. Atera dezagun lupa.</b> Lehenengo jarduerari helduko diogu berriro: gelan ikusitako “booktuber-ik onenak” ikusiko ditugu berriz ere, baina oraingoan, arreta handia jarriko dugu xehetasun guztietan: testu-tipoan, hizlariaren hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioan, paisaian, mezu subliminaletan (horrelakorik balego). Ondoren, talde handian komentatu eta grabaziorako kontrol-orria sortuko dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Argudio-testuen egitura eta baliabide linguistikoak eta ez-linguistikoak identifikatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Sortutako kontrol-orria</li> <li>- Behaketa</li> <li>- Kontrol-orria</li> </ul>
<p><b>8. Atera ditzagun arkatzak.</b> Prozesu osoan zehar landutakoa kontuan hartuko dugu. Booktube-ak aztertzean, beharrezko informazio guztia jaso dute; beraz, ikasleak prest daude aukeratu eta irakurri duten liburuaren kritika egiteko. Talde kooperatiboetan prestatuko dute gidoia; kontrol-orria erabiliko dute. <b>9. Atera ditzagun mikroak</b> Gidoia adostu eta prestatu ondoren, entseguak egingo dituzte grabazioa egin aurretik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-lanean, gatazkak errespetuz kudeatzen ditu eta adostasunera heltzen saiatzen da.</li> <li>- Argudio-testuak zuzentasunez, kohesioz eta koherentziaz sortzen ditu, aztertutako ereduetatik abiatuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errubrika (kritika)</li> <li>- Behaketa (talde-lana)</li> </ul>





### C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<b>10. Argiak, kamera, eta ekin!</b> Booktube-en grabazioak egingo dituzte.	- Talde-lanean, dagokion ardura hartuta eta errespetuz hartzen du parte.	- Behaketa - Errubrika (azken produktua)

## Gaztelania eta Literatura

### A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<b>1. Estos son nuestros libros y nuestros autores y autoras.</b> Landuko ditugun liburu eta idazleen aurkezpen informalak egingo dira. Horretarako, talde bakoitzak datu konkretu batzuk bilatu eta eskema txiki batean, gidoi gisa, apuntatuko ditu, gela osoaren aurrean aurkezteko. Besteak beste, hauek aipatu beharko dituzte: - Liburuaren titulua; - Zer hizkuntzatan dagoen idatzita, eta jatorrizkoa edo itzulpena den. - Idazlearen izena eta gutxieneko datu biografiko batzuk: non eta noiz jaio zen; bere biografiaren xehetasun garrantzitsu edo esanguratsuak; zer mugimendu literariotan kokatu dezakegun... Hori egin ostean, lehenengo orrialdeak edo kapituluak beste ikaskideen aurrean ozen irakurriko dituzte.	- Libururen eta idazlearen informazio esanguratsua bilatzen eta transmititzen du. - Jariakortasunez ozen irakurtzen du. - Talde-lanean modu egokian hartzen du parte.	- Talde-lanean parte hartzeko moduaren behaketa. - Klase aurrean aurkezpena egiteko erabiliko duten gidioa. - Ahozko azalpenaren inplikazioa eta partaidetzaren behaketa.



## B. Garapen-fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>2. Conversación literaria (1). Visto lo visto, ¿hacia dónde nos llevará la historia?</b></p> <p>Liburu guztien lehenengo orrialdeak irakurri ostean, solasaldi literarioa egingo dugu.</p> <p>Gidatutako hausnarketa izango da: liburu guztien istorioak eta pertsonaien bizitzak testuinguruan kokatuko ditugu. Honelako galderak egingo ditugu:</p> <p>Non eta noiz garatzen dira tramak? Zer dakigu leku eta momentu historikoei buruz? Nola eragingo du pertsonaiek bizi duten errealitateak istorioaren garapenean? Jasotako datuekin, protagonisten bizitzak nolakoak izango diren irudikatuko dute, eta beste garai batean edo beste leku batean biziko balira nola izango lirartekeen planteatuko dute.</p> <p>Talde bakoitzeko kide guztiek hartu behar dute parte dagokien liburuaren mamia azaltzeko solasaldian.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errespetuz entzuten ditu ikaskideen azalpenak eta teoriak.</li> <li>- Elkarrizketa literarioan era egokian hartzen du parte.</li> <li>- Hipotesi egokiak eta argudiatuak planteatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Solasaldi literarioan parte hartzeko modua. Behaketa.</li> </ul>
<p><b>3. Tenemos ejemplos...</b></p> <p>Ikasleek irrati-nobelaren bat, audio-liburu baten zatiren bat edo podcast-en bat entzungo dute. Taldeka, entzundako eszenan gertatzen dena ea ondo ulertu duten konprobatuko dute galdetegi baten bidez.</p> <p>Ondorioak aterako dituzte, horrelako irakurraldien eta normalean klasean egiten ditugun irakurraldien arteko desberdintasunei buruz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Entzundako ahozko testuak ondo ulertu eta interpretatzen ditu.</li> <li>-Estrategia egokiak erabiltzen ditu ahozko testuak interpretatzeko.</li> <li>-Irrati-nobelen edo audio-liburuen ezaugarri bereziak ondorioztatzen eta zerrendatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Galdetegia.</li> <li>- Zerrenda.</li> </ul>
<p><b>4. Conversación literaria (2). Analizamos a la protagonista.</b></p> <p>Liburu guztien erdia baino gehiago irakurrita dagoenean, gaiari buruzko</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Solasaldi literarioan parte-hartze aktiboa izateko interesa erakusten du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Solasaldi literarioan parte hartzeko modua. Behaketa.</li> </ul>



<p>gogoetak planteatuko ditugu. Emakume protagonista aztertuko dugu, haren rola istorioan: Rol hori ohikoa zen protagonistaren garaian? Eta orain? Zer paper betetzen du protagonistak inguruko jendearen bizitzan? Zer-nolako gertakizunak bizi izan ditu?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Interakzioetan egoki eta errespetuz hartzen du parte.</li> <li>- Proposatutako gaiari buruzko ekarpen interesgarriak egiten ditu.</li> </ul>	
<p><b>5. Estrategias para realizar una buena lectura dramatizada.</b> Taldean, ikasleek irakurketa dramatizatuaren ezaugarriak bilatu eta eskema batean apuntatu behar dituzte: intonazioa, pertsonaien ahots ezberdinak... Gero, talde handian konprobatu eta adostuko dute zein erabiliko ditugun gure lanean. Behin zerrendatuta, errubrika bat prestatuko dute, sortuko dituzten podcast-ekin ebaluazio-tresna moduan erabiltzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurketa dramatizatuaren ezaugarriak identifikatzen ditu.</li> <li>- Errubrika on bat prestatzen laguntzen du.</li> <li>- Talde-lanean parte hartzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errubrika.</li> <li>- Talde-lanean parte hartzeko modua. Behaketa.</li> </ul>
<p><b>6. Elegimos la escena.</b> Liburu bakoitzeko pasarte esanguratsu bat aukeratuko dute ikasleek. Pasartean bilbearen tentsioa islatu behar da jendearengan irakurtzeko gogoia pizteko eta, ahal dela, pertsonaia ezberdinen ahotsak entzun behar dira. Euskara eta Literatura ikasgaietan landuta egongo dira, bai eta argudio-testuen ezaugarriak ere. Taldearen aurrean, ikasle bakoitzak bere proposamena argudiatuko du modu informalean. Ondoren, eszenaren giroari erreparatuko diogu. Irakurketa dramatizatuaren, giro-soinuak oso inportanteak dira: ikasleek konprobatuko dute zer teknika erabiltzen dituzten profesionalen soinuak erreproduzitzeko (airea, euria, trafikoa, atearen irekiera...).</p> <p>Aurreko jardueran egindako errubrikan, giro-soinuko elementuen presentziaren</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburuaren pasarte esanguratsuen aukeraketan modu arrazoituaz hartzen du parte.</li> <li>- Eszenan komendi diren giro-soinuak ondo identifikatzen ditu.</li> <li>- Errubrika osatzen laguntzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pasartea.</li> <li>- Errubrika.</li> <li>- Talde-lanean parte hartzeko modua. Behaketa.</li> </ul>



erreferentzia zehatza gehituko dute.		
--------------------------------------	--	--

### C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>7. En el aire!</b> Grabazioa egiteko, lana banatu beharko dute: definitu beharko dute nork irakurriko duen eta giro-soinuak nork egingo dituen. Jariakortasunez irakurtzeko behar beste entsegu egingo dituzte. Irakasleek esku-aplikazio on bat gomendatuko diete.</p>	- Grabazioa egitean, dagokion lana arduraz egiten du.	- Podcast-a ebaluatzen errubrika. - Grabazioan parte hartzeko modua. Behaketa.
<p><b>8. Colaboramos en el diseño final</b> Grabazioa egin ondoren, podcast-erako QR-ak sortuko dituzte eta afixetan gehituko dituzte modu orijinalan.</p>	- Talde-lanean parte hartzen du.	- Grabazioan parte hartzeko modua. Behaketa.
<p><b>9. Conversación literaria (3). Tertulia final.</b> Azken solasaldi literarioa honetan, liburuaren balorazioa egingo dute. Liburuaren argumentua eta trama, tratatzen diren gaiak, pertsonaien nortasuna, autorearen estiloa, eragindako interesa edo emozioak eta abar baloratuko dituzte. Gustatu al zaie?</p>	- Obraren zentzua bere esperientzia pertsonalarekin erlazionatzen du. - Obrak sortu dizkion inpresioak eta sentimenduak bere ikaskideekin partekatzen ditu. - Irakurritako obrari buruzko iritzia adierazten eta argudiatzen du.	- Solasaldi literarioan parte hartzeko modua. Behaketa.

### Ingelesa

#### A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<b>1. Liburuaren bakarkako irakurketa</b>		
<b>1. The Bookworm corner. Having a look at different book reviews.</b>	- Hiztegi berria ulertzeko eta barneratzeko	- Talde homogeneoetara



<p>Erreseina-eredu desberdinak (konplexutasun eta luzera desberdinekoak) oinarri hartuta eta “buruhargarria” egitura kooperatiboa (talde homogeenak) baliatuz, erreseinaren egiturari erreparatu eta hiztegia landu (testu idatzia). Ondoren, berariazko talde kooperatibora itzuli eta gure ondorioak adieraziko dizkiegu.</p>	<p>estrategia eta tresna egokiak erabiltzen ditu. - Idatzizko erreseina baten ohiko hiztegia eta egitura taldekideekin batera identifikatzeko gai da.</p>	<p>egokitutako jardura (laguntza gehiago edo gutxiagorekin kasuan kasu).</p>
<p><b>2. Opinion essays in Basque, Spanish and English. Similarities and differences.</b> Argudio-testuen egitura eta ezaugarriak hizkuntza desberdinetan. Antzekotasunak eta aldeak zehaztuko ditugu, talde kooperatiboetan, modu deduktiboan planteatutako jardura batean. (HTI materiala)</p>	<p>- Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko argudio-testuen antzekotasunak eta desberdintasunak bereizteko gai da.</p>	<p>- Taldeka ateratako ondorioen bilketa</p>
<p><b>3. Revising the structure of a Book review.</b> Erreseina baten egitura ikasiko dugu. Etxean, Edpuzzle-ko bideo bat ikusi eta ulermen-galderei erantzungo diete. Gelan, talde kooperatiboetan idatzizko apunteak ulertzeko eta barneratzeko ariketa interaktiboak egingo ditugu.</p>	<p>- Metahizkuntza erabiltzen duen erreseinei buruzko ahozko testu bat ulertzeko gai da irudien laguntzaz. -Erreseina baten atalak eta egitura ezagutzen ditu, bai eta berariaz dagokion hizkuntza espezifikoare.</p>	<p>- Edpuzzle - Ariketa interaktiboak (emaitzak ikasleka ikusteko aukera)</p>

## B. Garapen-fasea

Jardura	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>4. Your turn</b> Erreseina idatzi, txantiloia eta gidoiaren laguntzaz. Lehen zirriborroa.</p>	<p>- Gidoi bati jarraituz, ortografia-arauak errespetatuz, sormenez, eta koherentzia eta kohesioa mantenduz liburu baten erreseina idatzia sortzeko gai da.</p>	<p>- Liburu baten erreseinarako errubrika.</p>



<p><b>5. Critique and feedback. Learning from each other.</b> Feedback-aren garrantziari eta hura egiteko moduari buruzko bideo bat ikusiko dugu eta ulermen-galdera batzuei erantzungo diete etxean, bakarka (Flipped Classroom). Ondoren, Corrubrics-ekin sortutako errubrika erabiliz, talde kooperatibo bakoitzak 4 ikaskideren erreseinak ebaluatuko ditu. Indarguneak eta hobetu beharrekoak zehatz adieraziko dituzte. Ikasleengandik zein irakasleengandik jasotako feedback-a kontuan hartuta, ikasle bakoitzak bere erreseinaren 2. zirriborria idatziko du.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza estandarrean sortutako feedback-ari buruzko ahozko testu bat ulertzen du, azpтитulu eta irudien laguntzaz.</li> <li>- Errubrika baten laguntzaz taldekideekin batera feedback egokia ematen du, modu zehatz eta zintzoan eta kortesia arauak errespetatuz.</li> <li>- Autoebaluazioaren, koebaluazioaren eta heteroebaluazioaren emaitzak onartzen ditu eta idatzizko testuaren akatsak zuzendu, eta bertsio hobea sortzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Edpuzzle</li> <li>-Corrubrics errubrika</li> </ul>
<p><b>6. Choosing the best review of our team.</b> Erreseinaren errubrika aurrean dugula eta “talde nominala” egiturari jarraituz, taldeko erreseinarik onena aukeratuko dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere ideiak eta sentimenduak errespetuz eta modu eraginkorrean adierazten ditu, besteen iritziak errespetuz entzunez eta besteek arrazoiak izan dezaketela onartuz, gatazkak daudenean zergatiak aztertu eta konpontzeko bidean jarritz, eta negoziazioaren emaitzak onartuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- “Talde nominala” egituraren txantiloia eta talde-plana.</li> </ul>

### C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>7. Designing the presentation of our book reviews.</b> Aurkezpen-diseinuak proposatu (bat taldeko), tresna digital zehatz bat erabilita, eta bakarra adostu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Testu multimodal bat sortzeko tresna digital egokia aukeratzeko eta diseinu on bat proposatzeko gai da.</li> <li>- Talde-lanean bere ideiak eta sentimenduak errespetuz eta modu eraginkorrean adierazten ditu, besteen iritziak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkezpen-diseinuak eduki beharreko elementuen kontrol-zerrenda.</li> <li>-Talde-plana</li> </ul>



	errespetuz entzunez eta besteek arrazoia izan dezaketela onartuz, gatazkak daudenean zergatiak aztertu eta konpontzeko bidean jarri, eta negoziazioaren emaitzak onartuz.	
<p><b>8. Final production.</b></p> <p>Gure erreseina, adostutako app-aren formatuari eta diseinu-irizpideei jarraituz, testu multimodala bihurtu eta hura ikusteko QR kodea sortuko dugu. Ondoren, kontrol-zerrendari jarraituz sortutako testu multimodalen autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa egingo ditugu. Azken bertsioa osatuko dugu, jasotako feedback-aren arabera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adostutako estrategia eta tresnak erabiliz eta sormena baliatuz, testu multimodal digital bat ekoizten du.</li> <li>- Beste talde kooperatiboen lanen inguruan itzulketa zehatza eta egokia ematen du errubrika bati jarraituz.</li> <li>- Beste talde kooperatiboetatik jasotako bertsioak kontuan hartuta akatsak modu egokian zuzentzen ditu eta taldeko azken produkzioa hobetzen du.</li> <li>- Testu multimodal digitalera lotura duen QR kodea sortzen du.</li> </ul>	<p>Corubicsekin egindako kontrol-zerrenda.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- QR irakurlea.</li> </ul>

## Frantsesa

### A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<b>1. Liburuen bakarkako irakurketa.</b>		
<p><b>2. Pertsonaiak identifikatu.</b></p> <p>Liburua irakurtzen ari diren bitartean, pertsonaia nagusi eta esanguratsuen zerrenda sortu bakarka.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburuko pertsonaia nagusi eta esanguratsuak identifikatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behaketa (egindako pertsonaien zerrenda, gelako lana)</li> <li>- Ulermen-galderak</li> <li>- Ikaslearen koaderno</li> </ul>
<p><b>3. Adibideak aztertzen.</b></p> <p>Nobela desberdinetako adibideak hartu eta, taldeetan, pertsonaien</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonaien deskribapenerako informazio zehatza ulertzen du.</li> </ul>	



<p>zerrendak aztertuko ditugu. Abiapuntu gisa, honelako galderak erabil daitezke: Zer pertsonaia aipatzen dira? Zer esaten da haiei buruz? Nolako deskribapenak egiten dira?...</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulermen-estrategia egokiak erabiltzen ditu.</li> <li>- Interesa erakutsiz eta modu aktiboan egiten du lan.</li> </ul>	
---	--	--

### B. Garapen-fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>4. Gure pertsonaiak.</b> Talde kooperatibo bakoitzak adostuko du aukeratu duen liburutik zein pertsonaia landuko dituzten eta nola banatuko dituzten taldekideen artean, ondoren lana egiteko: zein pertsonaia sartu behar diren zerrendan, nork eta nola deskribatuko dituen...</p> <p><b>Erreparatu emakumezkoak diren pertsonaiei!</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lankidetzaz-estrategia errazak hautatzen eta bideratzen ditu.</li> <li>- Talde-lanean sortzen diren gatazkak ondo kudeatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-lanaren ebaluazio-taula.</li> </ul>
<p><b>5. Pertsona deskribapenak, vocabulaire.</b> Pertsona-deskribapenetan erabili beharreko hiztegia landuko dugu, etxerako bideo baten bidez (Edpuzzle) eta, ondoren, gelan egindako ariketa batzuk eginez (Adjectifs de personnalité, relations personnelles... )</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiztegi berria barneratzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.</li> <li>- Azalduko hiztegia ulertu eta ondo erabiltzen du ariketetan.</li> <li>- Hiztegi berria liburuko hizkuntzakoarekin eta bere beste hizkuntzetakoekin alderatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiztegiari buruzko ariketak.</li> </ul>
<p><b>6. Pertsona-deskribapenak, grammaire.</b> Azalpenerako gramatika landuko dugu: (les pronoms relatifs) berriro ere Flipped Classroom metodologia erabil dezakegu, eta teoria lantzeko,</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulertzeko izan dituen zailtasunak identifikatzen ditu.</li> <li>- Azalpenak arretaz barneratu eta taldean modu egokian azaltzen edo azalpenak jasotzen ditu.</li> <li>- Ikasitako gramatika ondo</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Edpuzzle</li> <li>- Taldeko lana</li> <li>- Ariketak</li> <li>- Ikaskuntza-prozesuari buruzko</li> </ul>





<p>bideoak Edpuzzle bidez etxean ikusteko bidali. Ondoren, gelan, taldeetan ikusitakoaz hausnartu eta jarduerak egingo dituzte.</p>	<p>erabiltzen du deskribapenetan.</p>	<p>galdetegia.</p>
<p><b>7. OSCAR</b> Pertsonaien deskribapena landu OSCAR ( karakterizazio zuzena eta zeharkakoa) Flipped Classroom metodologia erabil dezakegu, eta teoria lantzeko, bideoak (etxean ikusteko Edpuzzle bidez). Ondoren, gelan talde kooperatiboetan eta “folio birakariaren” teknika erabiliz, narrazio motz baten pertsonaia nagusia deskribatuko dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpenei arretaz eta interesez jarraitzen die.</li> <li>- Errespetuz eta adi ikusten ditu azalpen bideoak.</li> <li>- Modu aktiboan eta arretaz egiten ditu hiztegiko ariketa interaktiboak.</li> <li>- Ulertzeko zailtasunak identifikatzen ditu eta hala ere saiatzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behaketa</li> <li>- Edpuzzle bideoa</li> </ul>
<p><b>8. Nork berea.</b> Narrazio labur horretan oinarrituta, norberak beste bi pertsonaiaren deskribapena egingo du. Ondoren, taldean elkarri zuzenduko diote eta koebaluazioa egingo dute.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasitako hiztegia eta gramatika ondo aplikatzen ditu deskribapenean.</li> <li>- Ondo zuzentzen du testua, errubriketan jasotakoa kontuan izanik.</li> <li>- Taldean modu kooperatiboan testuak zuzentzeko eta birmoldatzeko estrategia egokiak erabiltzen dituzte.</li> <li>- Jasotako zuzenketekin moldaketa egokiak egiten ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errubrika</li> </ul>

**C. Azken fasea**

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>9. Gure pertsonaiak 2.</b> Bakarka, gure liburuko pertsonaiei buruz egindako deskribapenak taldean zuzendu eta birmoldatuko ditugu, errubrika, koebaluazioa eta zuzentzeko estrategiak eta erremintak erabiliz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartu eta lankidetzaz-estrategia errazak hautatzen eta bideratzen ditu.</li> <li>- Ikasitako hiztegia eta gramatika ondo aplikatzen ditu deskribapenean.</li> </ul>	<p>Pertsonaien behin betiko zerrenda.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Errubrika.</li> <li>- Talde-lanaren ebaluazioa.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondo zuzentzen du testua, errubriketan jasotakoa kontuan izanik.</li> <li>-Taldean, modu kooperatiboan testuak zuzentzeko eta birmoldatzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu.</li> <li>-Taldean adostasunera iristen da eta sortutako arazoei modu egokian aurre egiten die.</li> </ul>	
<p><b>10. Azken ekoizpena.</b> Bukaerako aurkezpenaren diseinua eta diseinu hori egiteko tresna adostu eta modu egokian osatu, ondoren afixan jartzeko. QR kodea sortu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errubrikan eskatutako azken pertsonaien deskribapenak betetzen ditu.</li> <li>-Talde-lanean modu kooperatiboan hartzen ditu erabakiak.</li> <li>- Diseinua egokia da azken ekoizpenean erabiltzeko.</li> <li>- Diseinurako baliabideak (analogikoak zein digitalak) modu egokian erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken ekoizpenaren errubrika.</li> <li>- Erabakiak hartzeko errubrika.</li> </ul>

### Proiektuaren difusioa

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p><b>11. Entzun gaitzatela edonon.</b> Bideoak grabatuta daudela, QR kodeak sortuko dituzte. Bideoei zabalkundea emango diegu –gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko lanekin batera–, modu digitalean eskolako web-orrian, eta modu fisikoan ikastetxeko eta herriko liburutegietan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktua sortzeko behar diren IKTak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behaketa</li> </ul>



<p><b>12. Zer eta nola ikasi dugu?</b> Ikasitakoari buruzko hausnarketa egingo dugu eta autoebaluazioa eta koebaluazioa egingo dituzte. Hurrengo liburuekin erabiltzeari begira, ikas-egoera osoa hobetzeko proposamenak egin ditzakete.</p>	<p>- Erregulazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozeduretan parte hartzen du eta hobetzeko iradokizunak egiten ditu.</p>	<p>-Autoebaluazio-txantiloia - Koebaluazio-txantiloia - Zer ikasi dut?  - Talde-plana (auto-, ko-) (IKKI)</p>
--	---	---

## Metodologia

### A. Printzipioak

Hizkuntza guztien azken xedea komunikazioa izanik, metodologia komunikatiboan eta hizkuntzen trataera integratuan oinarritutako ikas-egoera diseinatu da.

Ikaslea bere ikasteko prozesuaren erdigunean kokatu dugu, eta gure oinarria metodologia aktiboak izan dira. Izan ere, ikasleak, eragile aktiboa izanik, berdinekin elkarreaginean modu kooperatiboan lan egingo du eta irakaslea prozesu horren bideratzaile edo gidaria izango da. Horretarako, garrantzitsua da giro egokia lortzea.

Oinarrizko jakintzak hezkuntza-helburua lortzeko baliabide gisa hautatu dira, ikaskuntza-egoeraren gaitasunen ikuspegitik, horrela Flipped Classroom-aren printzipioetan oinarritu gara. Jardueretan gamifikazioa, erronka errealak, esanguratsua eta ikasleen gaitasunetara egokituak planteatzen dira. Horiek diseinatzeko orduan, besteak beste, BLOOMen taxonomia eta IDU printzipioak hartu dira kontuan. Ikasmilara egokitutako pentsamendu-gaitasun askotarikoak eskatzen dituzten jarduerak aurreikusi dira. Aniztasunari erantzuteko ekintza eta adierazpen-modu ugari ematen dira, eta horretarako, besteak beste, “buruhausgarria” egitura erabiltzen da. Egitura horrek aukera emango digu ikasleak talde homogeneousetan antolatu eta jarduera taldearen gaitasun-mailara egokitzeko. Era berean, ikasleen interesa piztuz inplikazioa lortzeko eta informazioa aurkezteko hainbat modu erabiltzen dira, baita ikasitakoa antzezteko eta irudikatze modu ugari ere. Azken produktuak ikas-egoera horretarako markatutako helburuen sintesia dira: ikasleek helburu horiek lortu ahal izateko tresna digital egokienak aukeratu eta erabili beharko dituzte. Gainera, ikasitakoaren funtzionaltasunaz ohartu eta komunitatearekiko atxikimendua sustatzeko, azken ekoizpenei zabalkundea emango diegu ikas-eremutik harago.

Ikaskuntza-prozesuan zehar ikasleak hainbat momentu hartuko ditu metakogniziorako. Talde-planaren bitartez eta bukaerako hausnarketaren bitartez, zer eta nola ikasi duen, zer zuzendu behar duen eta etorkizunean ikasitakoa



zertarako erabiliko duen hausnartuko du, besteak beste.

### A. Antolakuntza

Lehenengo saioan eta ikas-egoera osoaren azkenekoetan, komeni da 4 arloetako irakasleak gelan egotea, gaiaren aurkezpena eta lanaren ebaluazioa egiteko.

Batez ere gela barruan egingo dute lan, lau kideko talde kooperatiboetan, baina batzuetan, beste espazio batzuk ere hartu beharko dituzte –esaterako, liburutegia eta korridoreak–.

### B. Baliabideak

IDU printzipioak kontuan izanda, gaiak eta lanak aurkezteko modu desberdinak planteatuko dira, baita inplikatzeko eta adierazteko modu ugari ere, eta horretarako, hainbat baliabide didaktiko erabiliko dira:

- Metodologia kooperatiboak (“arkatzak erdira”, “irakurketa partekatua”, “1-2-4” eta “folio birakaria”).
- Flipped Classroom egin ahal izateko, Edpuzzle, YouTube eta beste bideo-plataformaren bat.
- IKTak: Afixan sartu beharreko QR kodeak egiteko app-ak...

### Ebaluazio-prozesua

Ebaluazioa hezigarria izango da; horretarako, ikaskuntzaz gain, prozesua ere ebaluatu behar da. Ondoko tresna hauek erabiliko dira:

- Kontratu didaktikoa
- Autoebaluazio- eta koebaluazio-galdetegiak
- Kontrol-orriak
- Produkzioetarako sortutako errubrikak
- Jarduera interaktiboak (Flipped Classroom, Kahoot, Edpuzzle...)
- Behaketak
- Ekoiztako azken produktuak

Ikasleei oso argi utzi behar zaie zer eta nola ebaluatuko den; komeni da kalifikazioan atal bakoitzak izango duen pisuaren negoziazioa haiekin batera egitea.

- Azken ekoizpenak: %
- Norberaren lanak: %
- Talde-lana: %
- Azterketa: %
- Jarrera: %
- Autoebaluazioa/koebaluazioa: %